

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
17/2009	R9/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

R 9/2011 ebazpena

17/2009 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko martxoaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka planteatutako gatazka negatibo honen inguruan: bi administrazioetatik zein den eskuduna "AAAAAAA, SL" entitateak, IFZ..... zenbakidunak, 2008ko hirugarren hiruhilekoari dagokion BEZagatik erreklamaturako konpentsazioa edo itzulketa egiteko. Gatazka hori 17/2009 espediente zenbakiarekin ari da izapidetzen Arbitraje Batzordean.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2009ko abenduaren 23an planteatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arbitraje Batzordean egun horretan erregistratu zen idatzia dela medio. Idatzi horretan jarraian laburtzen diren aurrekariak azaltzen dira:

- 1.- 2008ko irailaren 29an, "AAAAAAA, SL" entitateak (IFZ:) – aurrerantzean "entitatea"– Bartzelonatik Gipuzkoara aldatu zituen bere zerga eta sozietate helbideak, eta BEZaren 2008ko hirugarren hiruhilekoaren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
17/2009	R9/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

aitorpena ZAEAn aurkeztu zuen, haren emaitza 16.924,99 euro konpentsatzekoa izanik. Orobat, ekitaldi horri dagokion urteko aitortpen-laburpena ere aurkeztu zuen (390 eredua), eta esandako zenbateko hori itzultzeko eskatu zion Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari.

2.- 2009ko irailaren 17an, ZAEAk behin-behineko likidazio proposamena jakinarazi zion entitateari, eta bertan adierazi zion itzuli beharreko emaitza 0 eurokoa zela. Horretarako, argudiatu zion konpentsazioa edo itzulketa egiteko eskumena zerga helbidearen aldaketan BEZa ordainarazteko eskumena hartu duen administrazioari dagokiola.

3.- 2009ko irailaren 30eko idatzi batean, entitateak saldo negatibo horren konpentsazioa onartzeko eskatu zion Gipuzkoako Foru Ogasunari, eta horretarako aldatzeko eskatu zion 2008ko laugarren hiruhilekoari dagokion autolikidazioa (390 eredua) eta 2009ko lehen bi hiruhilekoetakoak, denak ere, Administrazio horretan aurkeztuak.

4.- 2009ko urriaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak ezezkoa eman zion entitatearen eskaerari, aurreko zerga helbidean jasan diren kuotak ezin direlako beste batera eramane.

5.- Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi zuen berak ez zeukala eskatutako BEZaren kuotak itzultzeko eskumenik, eta eskumen hori Estatuko Administrazioari zegokiola. Horregatik, administrazio horri igorri zion aitortpena. Estatuko Administrazioak ez zuen iritzirik eman Gipuzkoako Foru Ogasunaren eskumen ezaren deklarazioari buruz.

2. Arbitraje Batzordeak 2010eko abenduaren 20an onartu zuen tramitera Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazka negatiboa, eta Estatuko Administrazioari epe bat eman zion alegazioak aurkezteko, espedientea ikusgai jarri eta gero.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
17/2009	R9/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

3. Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak 2011ko otsailaren 9an aurkeztu zituen bere alegazioak, Batzorde honetan hurrengo egunean, otsailak 11, erregistratu zirenak.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. ZAEAk ongi dioenez, gatazka honetan auzia da erabakitzea zer administrazio den eskuduna “AAAAAA, SL” entitatearen 2008ko BEZaren hirugarren hiruhilekoari dagokion aitorten-likidazioaren saldoa itzultzeko, 16.924,99 euro guztira.

2. Bere alegazioetan, ZAEAk Auzitegi Gorenaren bi sententzia aipatzen ditu, 2010eko ekainaren 10ekoa eta 2010eko ekainaren 17koa, hain zuzen ere antzeko gatazken inguruan Arbitraje Batzorde honek hartutako erabakien aurkako errekurtsioetan eman direnak eta Batzorde honen jarrera berretsi dutenak. Bere alegazioetan, ZAEAk bi sententzia horietako lehena hartu eta ondoko paragrafoak transkribatu ditu handik, bertan laburbiltzen baita Auzitegi Gorenaren doktrina gai honi dagokionez:

“Subjektu pasibo batek zerga helbidea lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak hartu eta zerga helbide fiskal berriko zerga administrazioaren aurrean aurkeztutako aitorten-likidazioetara eramateak aldatu egingo luke Ekonomia Itunean aurreikusita dagoen eskumen ordainarazlea, zeren eta “ordainarazpen hori” murriztuta geratuko bailitzateke lehenago jasandako kuoten konpentsazioarekin (...)

Balio Erantsiaren gaineko Zerga bat-batean sortzen den zerga denez gero, subjektu pasiboak helbidea aldatu arte sortu diren BEZ guztiak sartu behar ditu administrazio eskudunaren aurrean aurkeztu dituen aldizkako aitorten-likidazioetan, eta kuota horiek kenkarirako eskubidea ematen badiote, une horretara arte sortutakoak ere kendu ditzake. Hortik ateratzen den diferentzia “garbiak” esango du zenbat ordainarazi behar den Administrazio bakoitzari dagokionez.(...)”.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
17/2009	R9/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

3. Ondoren, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak dio Ekonomia Itunaren 27.Bat.hirugarrena artikuluak hau xedatzen duela:

“Aurreko urtean 7 milioi eurotik gorako eragiketa bolumenik izan ez duten subjektu pasiboek, eragiketak lurralde batean zein bestean egin, Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte zergak, zerga helbidea lurralde erkidean baldin badute; eta zerga helbidea Euskadin edukiz gero, berriz, dagokion foru aldundian ordainduko dituzte zergak.”

ZAEAk adierazten duenez, 2008ko hirugarren hiruhilekoan “AAAAAA, SL” entitateak lurralde erkidean izan zuen zerga helbidea, eta haren eragiketa bolumena 7.000.000 euro baino txikiagoa izan zen aurreko urtean. Hori dela-eta, epealdi horretan BEZa ordainarazteko eskumena ZAEARI baino ez zegokion. Aipatutako jurisprudenzia aintzat hartuta, ondorioztatzen du BEZaren saldoa itzultzea Administrazio horri dagokiola.

4. Laburbilduz: ZAEAk dio onartu egiten dituela Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoak, eta ez dagoela ustekabeko gertakariak eragindako gatazkarik. Hortaz, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio garaiz eta modu egokian aurkeztutzat jo dezala Foru Aldundiaren asmoak onartzeko idatzi hau [...], eta adieraz dezala 17/2009 gatazkan gaur egun ez dagoela bi administrazioen artean inolako gatazkarik. Orobat, eta horrekin bat eginez, eskatzen du adieraz dezala ZAEA dela auzian dagoen BEZaren saldoa itzultzeko administrazio eskuduna.

5. Gaur egun gatazkarik ez dagoela adierazteko ZAEAk Arbitraje Batzordeari egindako eskaera guztiz bideraezina da berez, zeren eta gatazka ez baita irekita dagoen prozedura hau baino. ZAEAREN eskaera hori bere asmoan atzera egitea bezalakoxea da errealitatean, edo, zehatzago esanda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoari amore ematea bezalakoxea, Arbitraje Batzordea gatazka jasotzen duen Administrazioa baita, eta ez gatazka planteatu zuena. Amore ematearen figura ez da jasota ageri azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, zeina Arbitraje Batzorde honen Erregelamenduaren ordezkotzat izaeraz aplikatzen baita,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
17/2009	R9/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

erregelamendu horren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartu zuen Arbitraje Batzordearen Erregelamendua. Aldiz, figura hori badago jasota uztailearen 13ko 29/1998 Legean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan arautzekoan, 75. artikulua 2. apartatua honako hau xedatzen baitu: “Demandatuek amore emandakoan, epaile edo auzitegiak, beste izapiderik gabe, demandatzailearen uziekin bat datorren epaia emango du, non eta horrek ez duen ordenamendu juridikoa nabarmen hausten; ...”

Azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusita dagoen figura, eskubideari uko egitearena alde batera utzita, hemen ez baita aplikagarria, atzera egitearena da. 91.2 artikuluan ezartzen duenez, “Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdun aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek.” Arbitraje Batzorde honek onartu izan du aurreko beste prozedura batzuetan atzera egin izana prozedura amaitzeko. Horrela egin du, esate baterako, gatazka aurkeztu zaion Administrazioak Administrazio sustatzailearen asmoari berriaz amore eman dionean (ikus abenduaren 20ko 2/2010 Ebazpena, 34/2008 espedientean emana). Atzera egiteak, amore emateak ez bezala, ez du exijitzen organo administratiboaren berriazko ebazpenik gaiaren mamiar buruz, nahiz eta horrek, jakina, ez dituen aldatzen ebazpenetik eratortzen dien ondorio materialak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

- 1.- Onartzea Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak adierazitako amore ematea Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazkan, non auzia baita da erabakitzea zer administraziori dagokion “AAAAAA, SL” entitateak (IFZ:) 2008ko hirugarren hiruhilekoagatik erreklamaturako BEZa konpentsatzeko edo itzultzeko eskumena.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
17/2009	R9/2011	28/03/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

2.- Agintzea jarduketak amaitu eta artxibatu daitezela, eta gaiarekin lotuta bidalitako dokumentazio guztia atzera bueltatu dadila.